

'Sua nahi Mr. Churchill?' lanaren irakurketa ' Jakin ' aldizkarian

Liburutegi digitalak, euskal kutxen fusioa eta gizarte mugimenduen loraldia dira 160. aleko gaiak

Erredakzioa. Donostia

Kalean da Jakin aldizkariaren 160. alea. Gai nagusi bakarra ez du jorratzen aldizkariaren azken aleak eta Gerardo Luzuriagak, Txema Ramirez de la Piscina, Mikel Asurmendik eta Jenaro Garatek idatzitako lau artikuluz osatua dator Gaiak saila.

Mikel Asurmendi kazetariak Koldo Izagirrek idatzitako Sua nahi, Mr. Churchill? narrazio bildumaren irakurketa pertsonala eskaintzen du artikuluan, Izagirrerren liburua zeharkatzeko itsas-gida literario xumea. Izagirrerren liburua osatzen duten hamazazpi narrazioen irakurraldiek bere gain sortu zuten inpresioak eskaintzen ditu Asurmendik artikuluan eta, horretarako, Koldo Izagirrerren obrez gain, euskal literaturaren historiako beste hainbat idazleren lanak baliatu ditu kazetariak. Txomin Agirre, Gabriel Aresti edo Bernardo Atxagaren sorkuntzetako aipamenek laguntzen duten Asurmendik egindako irakurketa.

Jakin aldizkariaren azken alea, Euskal Herriko liburutegi digitalen panoramaren inguruan Gerardo Luzuriaga bibliotekariak idatzitako artikulua zabaltzen du. Liburutegi digitalen kontzeptuari buruzko gogoeta egin, eta Europako liburutegi digitalen lehen urratsak zehazten ditu Luzuriagak artikulua lehenengo zatian. Ondoren, Euskal Herrian horrelako liburutegia egiteko proiektu bateratu baten premia adierazi eta, haren ustez, egitasmo horrek izango lituzkeen abantailak zehazten ditu bibliotekariak. Horretaz gain, Euskal Herriko liburutegi digital guztien helbide elektronikoak eta ezaugarri nagusiak zein diren zehazten ditu Luzuriagak artikuluan.

GIZARTE MUGIMENDUAK. Txema Ramirez de la Piscina kazetaritza irakasleak gizarte mugimenduen loraldiaz hausnarketa egiten du Jakin-en azken zenbakian. Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, instituzio eta parte-hartze mekanismo tradizionalen alternatiba moduan aurkezten ditu gizarte mugimenduak. Gizarte eragile horiek komunikatzeko bide eta modu berriak sortzen eta garatzen ari direla nabarmentzen du. Ramirez de la Piscina araberak, gizarte eragile berri horiek iritziz publikoaren plaza nagusian agertu eta han lekua edukitzeko borrokan ari dira, eta helburu hori lortzeko bozeramaile egokiak trebatzeko premia larria dute.

Jenaro Garate ekonomialariak idatzia da aldizkariaren 158. aleko laugarren artikulua. Kutxen fusio egitasmoaren inguruko eztabaidan euskal gizarteko hainbat esparrutatik planteatzen diren aldeko eta aurkako argudio eta iritzia jasotzen ditu Garatek. Horretaz gain, ekonomialariak bere iritzia emateko baliatzen du artikulua eta Kutxen fusioa euskal gizartearentzat eta euskal ekonomia orokorarentzat kaltegarria izango litzatekeela adierazten du. Garatek hainbat arrazoi ematen ditu bere tesia arrazoitzeko.

Ohi bezala, Egunen gurgpilean saileko orrialdeek ixten dute Jakin. Atal honetan, azken hilabeteetako albisteen berri eman, eta iruzkin labur eta pertsonalak egiten dituzte Lionel Jolyk soziolinguistika alorrean, Jon Benitok literaturan eta Patxi Gaztelumendik Telepolis atalean.